

“Feillet ahizpak : Euskal Herria irudietan 1837-1864” erakusketa birtual berria Bilketa webgunean.

Blanche eta Hélène Feillet XIX. mendeko margolari eta litografoek Euskal Herriaren itxurapena handizki emendatu zuen obra sortu dute, argazkigintza aitzineko grabaduraren urrezko aroa zen garai berezi hortan.

Euskal Herria aipatu zuten lehen bidaia gidaliburuetan eskua sarturik, bi ahizpek paisaiak, hiriak, baserrialdeak eta herritarrak erakusten dituzten irudi andanak marraztu dituzte. Obra horiek, erakunde publikoetan (Baionako euskal erakustokia, Baionako mediateka) baita bilduma pribatuetan ere gordeak, digitalizatuak izan dira, eta erakusketa numeriko batean bilduak, Bilketaren¹ eskutik.

www.bilketa.eus webgunean ikusgai den erakusketa birtual hau berriki artista hauek publikoari (ber)ezagutarazteko egin diren ekintzen segida da. Hala nola, Ormaiztegiko (Gipuzkoa) Zumalakarregi museoa 2015an izan zen "Hélène eta Blanche FEILLET emakume margolari aintzindariak XIX. mendeko Euskal Herrian" erakusketa. Horrezgain, 2015eko azarotik 2016eko urtarrila arte Baionako euskal erakustokiak Feillet ahizpen obraren aurpegi berritua eskaini zuen, Euskal Herriko bi lehen emazte margolariak gorai patuz.

Erakusketan agertzen diren 250 bat obrek 1837 eta 1864 arteko Euskal Herria itxuratzen duen albuma osatzen dute. Tokiak, paisaian kokatutako herri eta hiriak begiestera ematen ditu, baita eraikin deigarriak, itsasbazterrak, xehetasunez beteriko marrazkiak irudipen erromantikoarekin uztartuz. Genero lanak ere badira, biztanleak beren ohizko janzki eta egon-moldeetan agertzen dituztenak.

Feillet ahizpen margolanak parte handiz baliatu dira XIX. mendean biderkatzen diren turismo gidaliburuak ilustratzeko, eskualdeak bidaiari gero ta gehiago erakartzen duelarik, eta bereziki burgesia aberats bat, Biarritze eta inguruak opor toki arrakastatsu bezala bereganatzen ari duena.

1851ean Charles Hennebuttek (Blanche Feillet-ren senarra) argitaratu zuen « Guide du voyageur » liburuko zati anitz irakurgai dira erakusketan; bidaia bat segitzen ahal da horrela Baionatik Donostiara, Kanbotik barna “urak” hartuz, deskribapen koloretsuetaz gozatzu.

Haratago, Hélène eta Blanche Feillet ahizpen margolanek nabarmen uzten dituzte ingurumenaren aldaketak, hedatuz doan eraikuntzaren lekua, batez ere kostaldean. Betiko irudiak finkatzen dira ere, euskalduna, laborari bikotea, sardina saltzailearen itxura, tipikoak bilakatuko direnak, beren osagarri enblematikoekin : makila, boneta, kakoleta...

Erakusketa elebiduna da euskaraz-frantsesez, eta margolanak bilduma formatu numerikoan, bereizmen handian ikusteko paradaz gain, artistak, teknikak, testuinguru historiko eta artistikoaz

¹ Bilketa euskal funtsen agerian emateko programa da, Baionako Herriko Etxeak bultzatua, eta Akitania-Berria DRAC erakundeak, Pirinio-Atlantikoetako Departamenduak, Euskal Hirigune Elkargoak lagundua, Frantziako liburutegi nagusiarekin batean.

argibide eta azalpenak eskaintzen ditu.

Erakusketaren estrainaldia irailaren 19an Baionako mediatekan 18.15etan iraganen da, ekainetik irailera grabaduraren inguruan mediatekak antolatzen duen ekitaldiarekin eta Ondarearen Egunekin loturan.

Erakusketa aurkeztuko da ; ondotik Yves Carlier, Versailles-eko kontserbadore eta "Le Pays basque avant la photographie - l'âge d'or de la gravure 1810-1870" liburuaren idazleak mintzaldia emanen du.

DOSSIER DE PRESSE

L'exposition virtuelle « les sœurs Feillet illustrent le Pays basque 1837-1864 » mise en ligne par Bilketa.

Hélène et Blanche Feillet, peintres et lithographes du XIXe siècle, sont à l'origine d'une œuvre qui enrichira de manière conséquente la représentation du Pays basque, à cette époque particulière qui constitue l'âge d'or de la gravure et qui précède la photographie.

Associées à la édition des premiers guides de voyage décrivant le Pays basque, les deux sœurs exécutent des séries d'images figurant les paysages, les villes, les campagnes et leurs habitants. Ces œuvres, présentes dans différents sites publics (le Musée basque et de l'histoire de Bayonne, la Médiathèque de Bayonne), et des collections privées ont été numérisées, et rassemblées au sein d'une exposition virtuelle conçue par Bilketa².

Cette exposition virtuelle, qui est accessible au grand public sur le site www.bilketa.eus est le prolongement d'initiatives récentes destinées à faire (re)découvrir ces artistes au grand public. Ainsi l'exposition « Hélène et Blanche Feillet, pionnières de la peinture dans le Pays basque du XIXe siècle » s'est tenue en 2015 au musée Zumalakarregi à Ormaiztegui (Guipuscoa), et de novembre 2015 à janvier 2016, le Musée basque et de l'histoire de Bayonne avait offert au public une vision renouvelée de l'œuvre des sœurs Feillet, considérées aujourd'hui comme les premières femmes peintres du Pays Basque.

Les quelque 250 œuvres visibles dans l'exposition virtuelle constituent un album représentant le Pays basque entre 1837 et 1864. Celui-ci donne à voir les lieux, les villes et villages insérés dans le paysage, les édifices remarquables, les paysages côtiers, qui concilient description détaillée et vue romantique. Les scènes de genre saisissent les habitants dans leurs costumes et postures familiers. Les représentations des sœurs Feillet ont servi pour une large part à illustrer les guides touristiques

² Bilketa est un programme de valorisation des fonds basques, développé par la Ville de Bayonne et soutenu par la DRAC Nouvelle-Aquitaine, le Département des Pyrénées-Atlantiques, la Communauté d'Agglomération Pays basque, et la Bibliothèque Nationale de France.

qui commencent à fleurir au XIXe siècle, appelant à découvrir une région qui attire de plus en plus de voyageurs, et qui se trouve investie par une bourgeoisie huppée découvrant Biarritz, villégiature à la mode, et ses alentours.

De larges extraits du « Guide du voyageur », publié en 1851 par Charles Hennebutte (mari de Blanche Feillet), sont retranscrits dans l'exposition, permettant de suivre un itinéraire qui, de Bayonne à Saint-Sébastien en cheminant par les « eaux » de Cambo-les-bains, comporte de nombreuses descriptions pleines de pittoresque.

Au delà, les images dessinées par Hélène et Blanche Feillet permettent d'assister à la transformation des paysages, à l'emprise progressive des constructions sur la zone côtière en particulier. Une imagerie s'installe également pour longtemps, avec des représentations archétypales du basque, du couple de paysans, de la marchande de sardines, avec leurs accessoires emblématiques : le makila, le béret, le cacolet...

L'exposition est bilingue basque-français, et propose en plus de la collection des œuvres numérisées et visibles en haute définition, des textes destinés à apporter éclairages et compléments sur les artistes, les œuvres, le contexte artistique et historique.

Inauguration de l'exposition le 19 septembre à la médiathèque de Bayonne à 18h15, en lien avec le temps fort que la médiathèque organise sur la gravure de juin à septembre, et les Journées du Patrimoine.

Elle consistera en une présentation de l'exposition, qui sera suivie par une conférence d'Yves Carlier, conservateur au château de Versailles et auteur de l'ouvrage "Le Pays basque avant la photographie - l'âge d'or de la gravure 1810-1870)".

IRUDI BATZU / QUELQUES IMAGES

Paisaiak/ Paysages




Blanche Hennebutte-Feillet, Bayonne. *Place du théâtre*, [ca 1850], litografia, Baionako mediateka



Blanche Hennebutte-Feillet, Biarritz : *vue du port vieux et des deux établissements des Bains chauds et des Bains froids*, [circa 1850], litografia, Baionako mediateka.



Blanche Hennebutte-Feillet, *Biarritz, vue de la Côte des Fous, des Bains Napoléon, de la Villa et du Phare*, litografia, Baionako euskal erakustokia



Blanche Hennebutte-Feillet, *Place de Saint Jean-de-Luz*, [circa 1850], litografia, Baionako mediateka.



Blanche Hennebutte-Feillet, *Port de Passages*, litografia, Baionako euskal erakustokia



Les soeurs Feillet - Feillet ahizpak
feillet.bilketa.eus

Hélène Feillet, [Cambo], [circa 1850], akuarela, Baionako mediateka.

Eszenak/Scènes



8f
Les soeurs Feillet - Feillet ahizpak
feillet.bilketa.eus

Blanche Hennebutte-Feillet, Azcoitia et ses environs, [1850], litografia, Baionako mediateka



Hélène Feillet, *Pêcheuses de Saint Jean de Luz*, XIX.eko 2. Laurdena, litografia, Baionako euskal erakustokia



Blanche Hennebutte-Feillet, *Un basque*, XIX.eko 2. Laurdena, akuarela, Baionako euskal erakustokia